

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Euriak zapuztu ezin dezakeen ospakizuna

Inauteria igaro da, neguko eguraldia bete-betean dela

## Mintzalaguna egitasmoa Andoainen

Euskaldun zaharrak eta berriak hizkuntzaren baitan elkartzeko egitasmoa indartuz doa, Udalaren eta AEK euskaltegiaren eskutik / 2



Inauterietako argazki eta bideo ugari ikusgai daude [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) webgunean / 6-11

Juan Bautista Barandiaran Andoaingo musikari, margolari eta sortzailea zendu da / 3



Postontzia: Ametsondoa elkarteak eskola alternatiboa sortzeko deialdia luzatu du / 4

Eñaut Elorrieta kantariak kontzertua eskainiko du Saroben, Super H taldearen alde / 15

**%60 %50 %30 %40 %20**

# ALTZARIAREN AZOKA URNIETAN.

OTSAILAK **17-25**

Ordutegia:  
LAN EGUNAK eta LARUNBATAK  
9:30-13:00/ 16:00-19:30.  
IGANDEA 19 eta 25 9:30-13:00.  
IGARATEGI INDUSTRIALDEA 70.  
20130 URNIETA.  
[www.mueblesiturbe.com](http://www.mueblesiturbe.com)

**Nei**  
Muebles Altzariak

**iturbe**  
SUKALDEA ETA ETXEA (1944az geroztik)





Mintzalaguna egitasmoa kideak joan zen otsailaren 7an Udaletxean egindako aurkezpenean. AIURRI

## Mintzalaguna egitasmoa indartsu hazten ari da

2011 urtean sortu zen Mintzalaguna egitasmoa, eta geroztik gorantz doa mintzalagunen kopurua. Zortzi bideoz osatutako kanpaina jarri dute abian, herritar gehiago euskara praktikatzera hurbil dadin

### Olatz Lasa ANDOAIN

Kafe bat hartuz edota paseatuz euskara praktikatzeko; horixe da Mintzalaguna egitasmoaren funtsa. Egunerokotasunean, euskara ahoan erabiltzea. Egun, 57 kidek osatzen dute egitasmoa, inoizko kopururik handiena. Horietatik 40 dira euskara praktikatzera joaten direnak, bidelariak deritzotenak, eta gainontzekoak bidelariei euskara praktikatzeko laguntzen diotenak dira, bidelagunak. Ainara Rodriguez Euskararen Normalkuntzarako Batzordeko zinegotziak azpimarratu duenez, "euskara praktikatzeko gunea da, presiorik gabe eta hanka sartzeko lotsarik gabe".

Astean ordubetez elkartzeaz gain, ekintza eta irteera desberdinak antolatzen dituzte, hala nola, bertso-afaria, errege-opil tailerra, sagardotegia, karaokea... "Euskara indartzeko modua ahoz aho, bizi-bizi egitea da. Eta euskararik txarrena egiten ez dena", azaldu du Ainara Loyarte An-

doaineko Mintzalaguneko koordinatzaileak eta AEKko kideak.

### Mintzalagun gehiagoren bila

Kide gehiago bilatzeko asmoz, zortzi bideoz osatutako kanpaina jarri dute abian. Hogeita bost mintzalagunek hartu dute parte, euren esperientziak plazaratuz. Marian Ibaibarriaga bidelagun lanetan ari da, eta euska-

ra praktikatzeko laguntzen die besteek: "Euskara maite dudalako egiten dut, eta nire aportazioa euskara ez dakitenei praktikatzeko laguntzea da". Mari Jose Arconada trebatzen ari da: "Euskaraz hitz egiteak lotsa ematen zidan, baina ez hitz egiteak dakizun apurra galtzea dakar. Mintzalagun izatea oso ona da euskara praktikatzeko".

## Gurasoak eta haurrak euskaraz

Euskara familian praktikatzeko helburuz, "Bidaide" izeneko ekimena antolatu du Mintzalaguna egitasmoak. Gurasoek eta haurrek elkarrekin egiteko moduko ekintzak dira, hala nola, ipuin kontalaria, gozogintza tailerra edota jolas kooperatiboak. Modu horretan, tarte eder bat familian igarotzeaz gain, euskaraz mintzatzeko aukera ezin hobea da. Aurrera begira, honako ekintzak dituzte aurreikusita: eskulan tailerra, Interneteko aplikazioak euskaraz eta dantza tailerra. Mintzalaguna egitasmoan izena eman edota informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko euskara zerbitzuarekin edota Andoaingo AEK euskaltegiarekin harremanetan jarri behar da.

Info: 943 591 704 | andoain@ae.com | andoainarraeuskaraz.com



'Martxoak 8, 8 emakume' ekitaldia, iaz. AIURRI

## 'Martxoak 8, 8 emakume' kalejira iragartzeko grabaketa

Udalak emakumeentzat tailerra antolatu du Urigainen, kalejira iragartzeko bideo grabaketa egiteko

### Erredakzioa ANDOAIN

"Pausoz pauso. Martxoak 8, 8 emakume" egitasmoa iragartzeko bideoa grabatuko du Andoaingo Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasun lansailak, Pixelatu ekoiztetxearekin elkarlanean. Ideiak sortzen hasteko, 'ahalduntze tailerra' antolatu dute otsailaren 24an Urigainen, 10:00etatik 13:30etara eta 15:30etatik 18:00etara.

Helburua emakumeak ikusentzunezko arloan trebatzea da, bideoaren lanketan parte hartze zuzena izanik. Tailerrera joaten diren emakumeek erabakiko

dute zein izango den spot edo iragarkian zabaldu nahi den mezua, eta baita zein irudiren bitartez ikusaraziko den mezu hori ere. Tailerrean sortzen diren ideiak oinarritzat hartuko dituzte Pixelatu ekoiztetxe kideek, eta eurek emango dizkiote azken ukituak bideoari. Prest dagoenean, zabalpen lanari ekingo zaio.

### Omenduen aukeraketa

Ostegun honetan aukeratu dituzte, aurtengo protagonistak. 18:00tan hasita, Urigainen deitu dute bilera.



Hiru ikastetxeetako zuzendariak, jangelako arduradunak eta alkatea. ANDOAINGO UDALA

## Gugandik hasita

Gaikako bilketa egokia egiteko kanpaina abiatu zuen Andoaingo Udalak, duela gutxi. Gizarte osoarengan eragin asmoz, herriko ikastetxeen konpromisoa jaso dute, "Andoain jasangarriagoa eta garbiagoa izan dadin". Hurrengo asteetan gizarte mailako eragile ezberdineganako joko dute. Andoainean, gaikako bilketa, %42koa da egun.



# Juan Bautista Barandiaran zendu da

Joan zen otsailaren 12an, astelehenarekin, Juan Bautista Barandiaran Iturriotz herrikidea zendu zen. Andoainen irakasle, musikazale eta margolari ezaguna izan zen. Haurtzaroan, 1936ko Gerran, erbestea ezagutu zuen

## Erredakzioa ANDOAIN

Tere Errorekin ezkondu zegoen, eta hiru alaben aita zen: Itziar, Olatz eta Idoia. Hileta elizkizuna asteazkenean egin zuten, San Martin parrokian.

Zumea kalean jaio zen 1928an. Andoaindar peto-pettoa zen Juan Bautista, eta San Juan egunean jaio zela harrotasunez eta umore puntu batez aldarrikatu ohi zuen. Euskaltasunaren sentimendu sendoa zeukan familia baten altzoan jaioa; 1936ko Gerran gogotik sufritzea tokatu zitzaion familiari. 1936ko uztai-lean militarrek altxatu zirenean izua nagusitu zen Andoainen, eta Barandiaran Iturriotz familiak ehunka pertsonen osatutako erbestea bere larrutan pairatu zuen. “Andoingo haurrak erbestean” dokumentalean ederki asko biltzen da bere senideek eta herriko beste zenbait haurrek ihesaldian pilatutako bizipenak. Bi urte igaro zituzten Frantzian. Aiurriri 2010ean eskainitako elkarrizketan, haurtzaroko pasarte hura gogoratu zuen: “Frantziako goiko muturreraino iritsi ginen pixkanaka, Alemaniako mugaraino. Ez genuen tutik ere ulertzen frantsez, keinuak eginez moldatzen ginen”. Frantziatik itzuli zirenean, Andoain erabat aldatuta



Juan Bautista Barandiaran, 2010ean ateratako argazkian. AIURRI

topatu zuten. Frankismoak inposatutako beldurra, isiltasuna eta euskararekiko zapalketa izan ziren nagusi.

Barandiaranek goi mailako ikasketak egin zituen, eta ondoren Beasainen, Zumarragan eta Deustun irakasle izan zen. Geroa Laborde lantegiko ofizioen eskolan eta La Sallen aritu zen irakasle; bertan hartu zuen erretiroa. Musika zale amorratua zen, eta autodidakta arlo horretan. Besteak beste, Laborden eta La Sallen sortu ziren abesbatzetako zuzendaria izan zen. Abes-

tien konposatzaile ere izan zen; doinu eta letrak sortzeko ohitura baitzuen. “Erramueta” izan zen bere sormenetik ateratako azken pieza alai; 2008an sortu zuen, Sorabillako baserria inspirazio iturri edukita, eta urte hartan bertan estreinatu zuen Andoingo Udal musika bandak. Geroztik Gora Kaletxiki Txarangak Sorabillako jaietan pieza hori eskaini izan du.

Marraskilaritzarako joera ere eduki zuen, eta ehunka quadro egiteaz gain, haurrei margotzen irakatsi izan zien.



Lipus, Fachado edota Andonegi aktore profesionalak parte hartzen ari dira.

## Adinekoen zaintza eta hizkuntza

Adinekoen zaintzarako komunikazio egoerak ezagutu eta metodologia berria lantzea helburu du COMBI project egitasmoak, Europar Batasunak sustatuta. Egitasmo horren baitan, Banaiz Bagara elkarte hainbat bideo grabatzen aritu zen San Joan Bataiatzailea egoitzan, joan zen larunbatean.



Elixabet Mendizabal eta Amaia Armendariz, saria eskuetan dutelarik. AIURRI

## Gida-baimena euskaraz

Elixabet Mendizabal Ezeiza eta Amaia Armendariz Iturralde saritu ditu Andoingo Udalak, 2017an zehar gidabaimena eskuratzeko azterketa teorikoa euskaraz ateratzeagatik. Ainara Rodriguez Euskara zinegotziak eman zien saria. Ekimena eskualde osoan indarrean dago, Udalek eta autoeskoletz sinatutako hitzarmenari esker.

**bertako**  
igogailuak | ascensores  
Igogailuen mantentze-lanak

LARRIALDI TELEFONOA DOAN

www.bertako.eus

info@bertako.eus

943 90 34 50

**24 orduko** asistentzia abisu guztientzat   
**Iraupen-konpromisorik** gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**

**Euskarazko** zerbitzua

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

## Irratiaren eguna

Otsailaren 13an, asteartearekin, irradiaren nazioarteko eguna ospatu zen, Nazio Batuen egutegiaren arabera. Gauza guztiei eguna jartzeko mania horri buruzko eztabaida beste baterako utzita, aitzakia polita izan liteke irratiaz pare bat ideia luzatzeko.

Beheralakotasuna, gertutasuna, benetakotasuna, ahozkototasuna..., ezaugarri bikainak itsatsi izan zaizkio beti. Arrazoi osoarekin. XX. mende hasieran jaiotako irradiaren heriotza iragarri zen telebista 60ko hamarkadan gure etxeetan zabaltzen hasi zenean. Baina bizi-bizirik iraun du geroztik, gaurdaino. Informazioa eta entretenimenduaren eredutzat jarri izan da telebistarekin alderatu izan denetan. Are gehiago, sinesgarritasunaren eredutzat hartu izan da, ikusita azken urteetan telebistak hartu duen bidea -Tele5k sortu eta besteez kopiatutako telezaborraren formula, sentsazionalismoz kutsatutako albistei eta erreportajeak...-

Esango nuke 50 urtetik gorako belaunaldiko gehienontzat, geure bizitzako ezinbesteko objektua izan dela irradi-aparatu, haurtzaroz geroztik. Nago, dena den, 50 urtetik beherakoekin hasita dagoela galtzen, nabarmen, irradiarekiko atxikimendu hori; konbentzionalekiko bai behintzat, ez hainbeste irradi formulekiko. Teknologia berriekin den-dena (mezuak, informazioa, argazkiak, bideotxoak...), azkar edukitzea nahi dugun garaiotan, gero eta argiago daukat gainbehera doala zaletasun hori. Kataluniako aferak hala erakutsi digu: jende ugari sare sozialetara jo izan du. Batetik, azken-azken albisteak di-da batean jakiteko; eta bestetik, fidagarritasuna

iturri alternatiboetan bilatzeagatik, lerro ideologiko ofizialistara lerratu diren estatuko irradi konbentzional handien aldean.

Azkenik, irratia gertutasunarekin eta herrikoitasunarekin identifikatzen den komunikabidea dela-eta,

### ANDOINGO HISTORIA HURBILEAN BI IRRATI ESPERIENTZIA IZAN DIRA: LEIZUR ETA LAPURTXULO

derrigorrezkoa egiten zait ekartzea zutabetxo honetara Andoingo historia hurbilak ezagutu izan dituen bi esperientzia txiki, herrian sortzen ziren albisteak jasotzeko bokazioarekin jaio zirenak. Lehena, Leizaur Irratia, larunbat goizetan emititzen zena, Leizaur euskaltegia zenak bultzatuta. Lapurtxulo Irratia, bestea; herriko kultur eragile batzuk abian jarri zuten ekimena, ikasketa tailer moduan.

## POSTONTZIA

### Eskola alternatiboa eraikitzeke deia

#### AMETSONDOA ELKARTEA

Duela urte bat edo, Andoingo guraso nahiz hezitzaile batzuk erungo hazkuntza eta hezkuntza sistemak hartutako norabidearekin kezkatuta elkartzen hasi ginen eta Ametsondoa hazkuntza, hezkuntza eta kultur elkarteak sortu genuen.

Sare falta haurdunaldian nahiz haurdunaldi ostean zehar, mugen eta zigorren arteko nahasmena hezterako garaian, teknologia berrien erabilera ez arduratsua etxean nahiz eskolan, eskoletako ikasle kopuruen ratio onartezinak, etxeko-lanak, metodologia zaharkituak edota metodo berriekiko sinesmen itsua, gurasoen desinformazioa pediatren nahiz hezkuntza profesionalen aldetik, euskararen ezaguera

eta erabilera eskasa haur eta gazteen artean, ingurumenarekin dugun harremana, teorien esaten denaren eta praktikan egiten denaren arteko aldea eskoletan eta abarrek kezka handia sortu dute guran.

Ingurura begiratuz, informatzera eta bide berriak deskubritzera bultzatu gaitu. Honela, hazkuntza eta hezkuntza ulertzeko eta aurrera eramateko bide anitz daudela ikusi dugu.

Gure ustez, hazkuntza eta hezkuntza jendartea eraldatzeko bide garrantzitsuenetako bat da. Ez dugu uste haurrari etorkizuneko herritarra dela transmititu behar zaionik, bere gain jarriz mundua konpontzearen zama eta ardura. Gu geu -guraso,

hezitzaile nahiz herritar- gara jendartearan oraina. Honela, Ametsondoan guraso nahiz profesionalen hazkuntza pertsonalaren behararen sinesten dugu. Soilik honela lortuko baitugu belaunaldi berriak gu baino herritar hobeak izatea, jendarte moduan mundu justuago, parekideago eta anitzago baten norabidean eboluzionatzea.

Guzti honengatik, haur eta gazteentzat espazio egonkor berri bat sortzearen beharra ikusi dugu. Otsailaren 21ean arratsaldeko 18.00tan elkartuko gara Andoingo Urigain kultur etxean gure ideia aurkezteko eta gurekin bat datozen guraso nahiz profesionalekin sarea osatzeko.

Anima zaitzete!

#### POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ  
 ALJATUAK: ALJATUAK, nestorx  
 TOKIKOM  
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
 ANDOINGO UDALA, Urnietako Udala  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:  
 EUSKO INJENIARIEN GOBERRU VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia  
 ZIURTAGIRIA: 2017 Bitkarn  
 BABESLEAK: BABESLEAK  
 Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



## PROTAGONISTA

# “Gizartea, orohar, solidarioa dela esango nuke”

ALMU SALAS URNIETAKO SUPER H ELKARTEKO ORDEZKARIA

**Amaia Senperena URNIETA**

Elkarte txikiak kontzertu handia antolatu du, otsailaren 15ean haur minbizidunen nazioarteko eguna dela eta. Almu Salas Super H elkarteak aurpegi ezaguna da Urnietan. **Larunbat honetan ez ohiko ekitaldia antolatu duzue, Saroben** Eñaut Elorrieta ekartzeko aukera ikusi eta ez genuen bi aldiz pentsatu. Gainera, kontzertuaren bitartez, herriarengandik elkarre bezala jasotzen duguna eskertu nahi izan dugu.

**Erantzun bikaina jaso duzue!**

Bai, sarrerak astebetean amaitu ziren. Lagun zein ezagun askok sarrerak erosi dituzte, baina baita kanpoko jendeak ere. Oso gustura gaude.

**Zer nolako jokabidea izan zuen Elorrietak, zuen berri izatean?**

Nor garen eta kontzertuaren zergatia azaldu ostean, esker onet onartu zuen gure proposamena. Kontzientzia gara berak agian beste proposamen batzuei uko egin diela gure



Almu Salas, Saroben. Larunbatean 19:00tan hasiko da kontzertua. AIURRI

aldeko kontzertua eskaintzeko, eta hori oso positibotzat hartzen dugu. **Gaixotasun onkologikoak dituzten haurren errealitatea bistaratzea beharrezko da, oraindik ere.**

Bai, gaixotasun arraroak eta onkologikoak bistaratu behar ditugu. Herria eta administrazioa dauden gabeziez kontura daitezen, eta baita ikerkuntzak duen garrantziaz ere.

**Zuei esker, Donostia Ospitaleko haurren eremuak beste itxura bat dauka, erabat koloretsua.**

Humanizazio proiektuak bezala definitzen ditugu. Haur batek ospitalean denbora asko pasatzen duenean bere beldurrak eta ezinegonak lasaitzeko lekua behar du. Eta ez soilik haurrak, baita harekin dagoen familiak ere. Paretak margoz eta kolorez betetzen hasi garenetik, jaso dugun erantzuna oso positiboa izan da. Jarraitzeko asmoa dugu.

**Kontzertuaz gain zer gehiago duzue esku artean?**

Nagusiki, bi ekitaldi. Lehena uztaillaren 15ean izango da. Bigarrena, Super H festa. Horiez gain, inguruko herri txikiengan gure ekintzak egiten jarraitzen dugu.

**Ikerketan sakontzeko diru gehiago, beraz.**

Normalean irabazi gehienak ikerketarako bideratzen ditugu, bai. Baina Eguberrietan egin genuen egutegi solidarioa humanizazio proiekturako bideratuko dugu.

**Urnietarrak bereziki solidarioak direla esango al zenuke?**

Gizartea, orokorrean hartuta, solidarioa dela esango nuke. Geroz eta ekintza eta elkarre gehiago dago, hainbat gabeziri aurre egiteko prest.

## HAU BE BADUGU!

**Andoaingo konpartsa ezberdinen bideoak**



Lupercales, Klaap, Andoahindu Gu, Unic@s, Patxadan edota Gulum Gele konpartsen bideo bana ikusgai dago Aiurrin, eta egunotan bisitaldi dexente bildu dituzte. Mozorro festa erakargarria da sarean dabiltzanentzat, inauteri festan murgilduta egon ala ez. Laburpen moduko bideoak ere irismen handia izan du.

**Argazkiak bolo-bolo, han eta hemen**



Igandean Flickr sarean gehien ikusi zen irudia Goikoplazan ateratako argazki hauxe izan zen. Irudiak, bideoak,... egunotan bolo-bolo dabilta sare sozial ezberdinetan. Aiurri.eus gunean jarraipen berezia egin da. Hainbat argazki-bilduma eskegita daude, ostegunean hasi eta igandera bitartekoak. Inauterizale asko dabil egunotan, euren irudien arrastoan.

**Makaldegiko WCaren 'estreinaldia'**

Makaldegian WC berria ipini dute, eta ordu gutxira, sarbideko argia edota etxolako kristala hautsita agertu dira. Julen Lorenzo andoaindarra oso aktibo ibili ohi da sare sozialetan, eta berak bota zuen salaketa "Andoaindarras y punto" FB orrialdean: *"Txoperako komun publiko berria. A ze estreinaldia eman dioten batzuek..."*. Herrikide askok bat egin dute bere salaketarekin.

## SAREAN

## Sinadura bilketa

"Minority SafePack" Europar Batasuna mailako ekimena da, hizkuntza gutxituei babesa bermatzeko sortu dena. Sinadura bilketarekin, zehazki, kultura eta hizkuntza gutxituak babesteko legea onartzea lortu nahi da. Ekimena Europako Legebiltzarrerara hel dadin, milioi bat europarren sinadurak lortu behar dira. Euskara EBko hizkuntza minorizatua izanik, euskaldunak ere kanpainarekin bat egiten ari dira, sare sozial ezagunen bitartez. [www.minority-safepack.eu](http://www.minority-safepack.eu) webgunean sartu eta bertan sinatu behar da.

## GORA ETA BEHERA



## Konpartsa eta karroza askoren megafonia

Soinuaren muga onargarria gainditzen da inauterietako konpartsa eta karrozatan, musika doinuak zarata bilakatu. Bata bestearen ondoan jarrita, gainera, anabasa izaten da. Inauteriaz berdin-berdin goza daiteke, amplifikagailuen bolumena apur bat jaitsiz. Herri guztietan errepikatzen den gertakaria da, irtenbide erraza duena. Sekula ez zaio, ordea, irtenbiderik ematen.





# Andoaingo inauteri kalejirarako atertu zuen

Euria, hotza, ... eguraldi kaskarra izan da inauterietan. Larunbat arratsaldeko mozorro desfilea izan ohi da jendetsuena eta, tarte horretan atertu zuen behintzat. Andoaingo inauterizaleek bikain erantzun zuten.

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Andoaindarrak urtez urte erakusten ari dira badutela grazia eta irudimena, eta gainera, Inauteriek gozatzeko gogo bizia edukitzen dutela. Ehunka andoaindarrek, kaleak hartu zituzten, Inauteriak berarekin dauzkan umorea zein egunero-kotasun arautuari trufa egiteko asmoa erakutsiz.

Jai egitarau oparoari begiratuz gero, ostegun ilunabarreko pintxo pote musikala bereiztu behar da, berrikuntza nagusia zen aldetik. Egia esan, urtero errepikatuko den ekitalditzat jo daiteke, oso parte hartzailea suertatu baitzen.

Larunbatera eta igandera bideratu ziren ekitaldiek, berriz, txanponaren bi aldeak erakutsi zizkiguten. Batetik, umoretsuak eta guztiz partehartzaileak izan zen desfilea. 21 konpartsa irten ziren beren karrozekin Etxeberrietan auzotik, inoiz baino gehiago. Horietaz gain, beste hainbat herritar ere txukun mozorrotuta ibili ziren kalean gora kalean behera. Bestalde, aitortu beharra dago larunbat egardia eta igande goiza hankamotz samar geratu zirela; beharbada giro txepelagatik. Jai giroa igande goizera luzatzea ez da andoaindarren oraingo errotu den ideia.



Maria Luisa Etxeberria, harategitik atera berri. AIURRI



Pailazo familia Kale Nagusian, larunbat goizean. AIURRI




El Rey Leon ikuskizuneko hainbat kide, Zumea plazan. AIURRI



Antzinako garaia biziberritu zuen hainbatek, bere proposamenarekin. AIURRI



Alizia ipuin miresgarriaren Andoaingo bertsioa. AIURRI



Alaitasuna nagusi zen inauterizale askoren aurpegietan. AIURRI





Soinuak musika eskolako taldeak larunbat eguerdiko emanaldia Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian eskaini zuen. AIURRI



Urtero bezala, kuadrila ezagun hau jaia alaitzen aritzen dira goizez eta arratsaldez. AIURRI



Veneziako soineko eta maskarak, Andoaian. AIURRI



Eguraldiari erreparatuta, argazkiko gazte taldeak mozerro egokia aukeratu zuen. AIURRI



Autoekin irri eta jolas ibili zen koadrilla. AIURRI





Kaleberrian harrapatutako batman-zale amorratuak. AIURRI



Beste mundu batetik etorritako bi "satelite".



Laura Duarte eta Jesus Callejon, Txumis konpartsakoak. AIURRI



Kutxipandikoak desfilea hasi aurretik motorrak berotzen. AIURRI



Batukada taldeko pailazoak. AIURRI



Andoahindu Gu taldeko gaztetxo kuadrilla konpartsan. AIURRI



Futbol amerikarreko jokalariek Andoainen. AIURRI



Somos la hostia konpartsako kideak desfilea hasi aurretik. AIURRI





Mailu Arruti, Inauterietan ezin falta. AIURRI



Poperoak diseinu berriko autoak probatzen. AIURRI



Pelotok konpartsako bikingoak. AIURRI



Andregai zoriotsuak lore-sortak airera jaurtiz. AIURRI



M. G. konpartsako astronauta taldea. AIURRI



Maskara lehiaketako irabazleak, Urigain etxean, sari banaketa ekitaldian. J.I. UNANUE



# Mozorro festa bakarra, ospakizun ezberdinak

Inauteria Urnietan bakarra izan arren, aurtengo festaren baitan ospakizun ezberdinak egin dira. Ikusleen begietara, festazaleen energia hori guztia ez da batere bistaratu eta horregatik, aurtun, jaiak txinpartak utzi dituela esan daiteke

**Jon Ander Ubeda URNIETA**

Gaia adostua zegoen, eta afitxetan egitaraua oparua eta zehatza zen. Larunbat goizean hasita, eguraldia hain petrala izanik, aukera onena bazkaria epelean egitea zen. Eta epelean ez bazen ere, gutxienez babesean. Festarako gogoia hotzari gailendu zitzaion, pilotalekuko gazte bazkarian. Mozorroei erreparatuta zalantzarik ez zegoen, hura bazkari musikala zen! Cisne negro, Fama, Flash dance, High School musical, Patito feo, Mago de Oz, Aladino, Los chicos del coro,... Aiurriko webgunean ikusgai daude taldeko argazki horiek guztiak. Dena esaten hasita, bazkaria *musikala* izateko, bazkarian ipinita zegoen megafoniaren kalitatea zatar samarra zen. Petritegi sagardotegiko kupela erdian ipinita, Urnietako gazte asko ospakizun betean ziren.

San Juan plazan mozorroen kalejira iragarrita zegoen, 16:30erako. Hara iristeko, Bosko Anitz txarangakoak eta haiekin batera etorritako gazte konpartsa kaleak alaitzen aritu ziren. Plazan ez zegoen jende asko, baina haietako gaztetxo batzuk oso mozorro dibertigarriekin agertu ziren. Denbora tarte bat bertan igaro ondoren, txaranga kalejiran jaitsi zen Idiazabal kalera. Lastima, plazatik kalerako bidean mozorroren desfilea ez baitzen kopuruan asko handitu. Orduak aurrera egin ahala, talde gehiago ibili zen. Poxta Zahar taldeak, esaterako, ordutegia bere erara moldatu zuen. Beranduago agertu ziren San Juan plazara, eta iluntzean jaitsi ziren Idiazabal kalera.

Inauteriak igande arratsaldean jarraipena izan zuen. Etxeberri plazan izatekoa zena, eguraldi petralagatik, Egape ikastolako jolastoki estalian izan zen.

Festa bakarra izan arren, ospakizun ezberdinak izan diren irudipena nagusitu da aurtun.



El Rey Leon filmetako protagonistatakoa, Labakak aukeratutako mozorroa. AIURRI



Aladino eta lagunak, koadrilen bazkarian. AIURRI



Fama, flash dance..., koadrila batek baino gehiagok aukeratutako mozorroa. AIURRI



Mago de Oz eta Patito feo koadrilak, elkarrekin. AIURRI



Igande arratsaldean Etxeberri plaza auzo elkarteak ospakizuna antolatu zuen. AIURRI



Plazan hainbat gazte, jaiaz gozatzeko prest. AIURRI





Los Chicos del coro abesbatza gaztea Urnietako inauterietan 'kantari' aritu zen. AIURRI



## Eskerrik asko denei

MIKEL PAGOLA URNIETAKO ALKATEA

Urnietako bizilagun agurgarriak: Herriko kaleak kolorez, alaitasunez eta umore onez bete dituzue. Giro ederrean gozatu dugu inauteriez, jarrera eredugarriekin eta besteekiko errespetuz. Azpimarratzekoa eta zoriontzekoa da. Eskerrak ere, herriko elkarteei, jarduerak aurrera eramateko burututako lan guztiagatik. Zuen ekarpena ezinbestekoa da. Baita, gainerako herritar guztiei ere, bide mozketen eta eragozpenen aurrean izandako jarrera ulerkorragatik. Jarrai dezagun horrela, Urnieta giro onez janzten. Bide hori denon artean egiten jarraitzeko hileru egiten den Jai Batzordean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Proposamenak eta iradokizunak jasoko ditugu, aurrerantzean ospatuko ditugun jaiak, geroz eta hobetoagoak izan daitezten.



Mikel, Jon, Unai eta Haritz, beste garai batekoa bilakatu den radiocasettearekin.



Bosko Anitz txarangak Salesiar ikastetxetik San Juan plazara kalejira egin zuen. Idiazabal kalean gora igo ziren, berriro. AIURRI



La llamada musikala, Salesiar ikastetxearen eskutik. AIURRI



Haurrak eta gaztetxoak izan ziren mozerro festa Idiazabal kalera eramaten zuten lehenak. AIURRI



Txarangaren aurretik festarako prest zegoen gaztetxo taldea. AIURRI



# Inauterietako ajea gaineratik kentzeko proba

**LASTERKETA** On Bosko lasterketaren laugarren edizioa egingo dute igande honetan, goizeko 11:00tan hasita. Lasterkarietz gain, Nordic Walking jardueran zaletu direnek ere parte hartu ahal izango dute

**Erredakzioa URNIETA**

Igandean, otsailak 18, On Bosko krosaren laugarren edizioa antolatuko du Salesiar ikasketxeak. Goizeko 11:00etan hasiko da, ikastetxetik bertatik. Aurtengoan, gainera, lasterketa bi modutara egin ahal izango da. Lehen, zazpi kilometrokoa, lasterka. Bigarrena, sei kilometrokoa, Nordic walking parte hartzaileentzat. Aurretik izena eman daiteke herrikrosa.eus webgunean eta ikastetxean, 10 euro ordainduta. Eta baita, nola ez, egun berean ere. Antolatzaileek dutxa beroa eta salda ziurtatu dituzte, parte hartzaile guztientzat. Baita sarien zozketa ere.



2015eko Herri Biran Nordic Walking jarduerako kideek parte hartu zuten. **AJURRI**



Garikoitz Arizmendi eta Aitor Aldunberri. **UKE**

## Udaberri txapelketan, lehen garaipena urnietarrentzat

**PILOTA** Perez de Arenaza eta Arozena senior mailako paleta gomazko bikotea, garaile

**Erredakzioa URNIETA**

Udaberri Txapelketan urnietarrek lehen garaipena eskuratu zuten paleta goman, senior mailan. Debatarren aurka bikain aritu ziren defentsa lanetan Xabier Perez de Arenaza eta Unai Arozena. Garaipena, hein handi batean, defentsa lanean oinarritu zen (19-25).

elkarren aurka lehiatuko dira, larunbat honetan 11:30ean hasita.

**Gipuzkoako Trinketeko Txapelketa**

Trinketean, eskuz binaka, Azkoitiaren aurka 40-26 irabazi zuten Garikoitz Arizmendik eta Aitor Aldunberrik. Aurtengoan finalera iristea dute helburu.

Senior mailan, Loitegik eta Esnaolak garaipen berria lortu zuten Villabonako Behar Zana taldearen aurka (40-15). Hirugarren garaipena jarraian eskuratu, beste bat lortuz gero finalerako txartela ziurra dute.

**Asteburuan bi partida Urnietan**

Urnietan 2 eta Soraluze taldeen arteko partida ostiral honetan izango da, 20:00tan hasita.

Senior mailako pala motzeko partidaren Urnietako bi taldeak



Larunbatean partida, 17:45etan. **UKE**

## Larunbat arratsaldean hitzordua Urnietako Udal kiroldegian

Aritzbatalde taldea garaitu zuten mutilek (24-25), sailkapenaren lehen postuei eusteko baliagarria. Asteburuan partida garrantzitsua jokatu dute, Zumaiako Pulporen aurka. Klubetik deialdi berezia egin diete zaletuei, animatzera hurbil daitezten. Larunbatean izango da (17:45), Kiroldegian. Neskak ere garaile izan ziren, Egiaren aurka (19-26). Igoera fasea eskura daukate.

## KARTELDEGIA: SASKIBALOIA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOIA	
SENIOR MAILA	
SAILKAPENA	
1 Zarautz	30 puntu
2 STL Azkune	29 puntu
3 Internacional	28 puntu
4 AIB	27 puntu
5 Oiartzungo Saskilagunak	26 puntu
6 Bergara Soraluze	25 puntu
7 Hernani	24 puntu
8 Ganbara	23 puntu
KADETE MAILA	
SAILKAPENA	
1 Goierri	25 puntu
2 Ganbara	24 puntu
3 Aloña Mendi	23 puntu
4 Andraitz	21 puntu
5 Arri BKL B	17 puntu
6 Gora-Behera	16 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
09:00	Ganbara-Mondragon C / Lar, 17

ARETO FUTBOLA	
SENIOR MAILA	
EMAITZAK	
Zaldibi-Euskalduna	3-3
SAILKAPENA	
1 Hirukide	34 puntu
4 Idiazabal	29 puntu
5 Euskalduna	25 puntu
6 Oiartzun	23 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00	Euskalduna-Legorreta / Lar, 17
ANDOAINGO TXAPELKETA	
GOLEATZAILAK	
Urtzi Azpiroz (Keler)	35
Joel Etxeberria (Powerade)	20
Asier Rubio (C. Extremeño)	20
Xabier Berrueta (Pausoka)	19
Xabier Zubiria (Ekaitz)	19
Jon Etxeberria (Dad Kutxa)	17
Cristofer Fernandez (Akerbeltz)	17
Ander Petxarroman (C. Extremeño)	16



# Aurtengo denboraldian debuta egin dute biek

**TXIRRINDULARITZA** Urnieta herrian profesional mailako bi txirrindulari daude. Eta dagoeneko biek ere debuta egin dute. Alonsok nahi baino beranduxeago, gaixotasunagatik. Iturriak dagoeneko zortzi lasterketa egun bete ditu



Prestaketa saioak lantzeko eguraldi kaskarra, aurtengoa. Iturria eta Alonso Urnieta Kontzejupean. ANDONI URBISTONDO

**Andoni Urbistondo URNIETA** Euskadi Fundaziokoak Murtzia eta Almerian korritu du, eta bigarrena bukatu; Iturriak zortzi lehiaketa egun pilatu ditu Frantziako errepideetan, eta kontent bueltatu da.

Gazteenak, Alonsok, Murtzia eta Almeriako klasikoetan parte hartu ahal izan zuen, pasa den asteburuan, Mallorcan debutatu ezinik geratu ostean, gaixotasunagatik. Euskadi Fundaziokoak ezin izan zuen lasterketa bukatu Murtzian, baina bai Almerian, igandean. Postu txu-

kuna lortzeko bidean zen Alonso, baina helmugarako 15 kilometro falta zirela gurgila zulatu, eta onenen tropelarekin batera helmugaratzeko aukera oro galdu zuen. Alonsoren hurrengo lehiaketa Alenteixoko Itzulia izango da, Portugal aldean, martxoaren 14tik 18ra.

## Mikel Iturria Euskadi Murias Team taldearekin

Iturriak ere debuta egin zuen Frantziako errepideetan. Denera 8 lehiaketa egun osatu ditu La Marseillaise, Etoile de Besse-

ges eta La Provence-eko itzulietan. 1.000 kilometro inguru, sasoi puntu ona lortzeko bidean. Iturriak abuztuan hautsi zuen izterrezurrean oinaze txiki batzuk sentitu ditu, "baina egunez egun hobeto sentitu naiz". Iturriak aste batzuk egingo ditu orain etxe aldetik, eguraldiak laguntzen badu bertako errepideetan ibiliz, eta ezin bada, eguraldiak laguntzen duen tokiren batera joango da. 7-10 egunez, bere prestakuntza fintzera. Litekeena da martxoan egun bateko proba pare bat korritzea, Nantes aldean.

## Euskalduna-Urnieta

**FUTBOLA** Larunbat honetan, otsailak 17, bi herrietako lehen taldeak lehiari arituko dira. Ubitarte zelaian izango da partida, arratsaldeko 15:30ean hasita. Euskalduna denboraldi polita egiten ari da, eta hirugarren postuan sailkatuta dago. Urnieta ez du azken orduko arrisku egoerarik bizi nahi eta punturen bat lortzea izango du helburu.



## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### PREFERENTE MAILA

##### EMAITZAK

Urnieta-Billabona	1-0
Oiartzun-Euskalduna	0-6

#### ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Euskalduna-Urnieta / Lar, 17

### ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

#### EMAITZA

Allerru-Euskalduna	1-2
--------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Euskalduna-Landetxa / Lar, 17

### IGOERA FASEA, NESKAK

#### EMAITZA

Urnieta-Hondarribi	2-1
--------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

19:30 Touring-Urnieta / Ig, 18

### KOPA, NESKAK

#### EMAITZA

Euskalduna-Amara Berri	3-1
------------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

11:50 Lizeoa-Euskalduna / Ig, 18

### JUBENIL MAILA, MUTILAK

#### IGOERAKO LIGAXKA

#### EMAITZAK

Danena-Urnieta A	2-2
Aloña Mendi-Euskalduna A	0-1

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Urnieta A-Aloña Mendi / Lar, 17

18:00 Zestoa-Euskalduna A / Lar, 17

#### KOPA

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00 Urnieta B-Lazkao / Lar, 17

17:30 Goierri-Euskalduna B / Lar, 17

### KADETE MAILA, MUTILAK

#### OHOREZKO MAILA

#### EMAITZA

Euskalduna-Oiartzun	0-0
---------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

10:00 Billabona-Euskalduna / Lar, 17

#### KOPA

#### ASTEBURUKO PARTIDA 4. MULT.

13:30 Añorga-Urnieta / Lar, 17

#### ASTEBURUKO PARTIDA 7. MULT.

12:15 Euskalduna-Tolosa / Lar, 17

### KADETE MAILA, NESKAK

#### ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Oiartzun-Urnieta / Lar, 17

### ESKUBALOIA

#### SENIOR MAILA, MUTILAK

#### EMAITZA

Eibar-Leizaran	38-24
Aritzatalde-Urnieta	24-25

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00 Leizaran-Tolosa B / Lar, 17

17:45 Urnieta-Pulpo / Lar, 17

### SENIOR MAILA, NESKAK

#### EMAITZA

Egia-Urnieta	19-26
--------------	-------

#### SAILKAPENA

1	Irauli Bosteko	28 puntu
2	Egia Kopidin	20 puntu
3	Urnieta	16 puntu
6	Leizaran	13 puntu
7	Eibar	10 puntu

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Urnieta-Legazpi / Lar, 17

10:00 Irauli Bosteko-Leizaran / Ig, 18

### JUBENIL MAILA, MUTILAK

#### GIPUZKOAKO TROFEOA

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

11:30 Elgoibar-Leizaran / Ig, 18

12:45 Hettich ZKE-Urnieta / Ig, 18

### JUBENIL MAILA, NESKAK

#### GIPUZKOAKO TROFEOA

#### ASTEBURUKO PARTIDA 1. MULT.

16:00 Untzilla-Urnieta / Lar, 17

#### ASTEBURUKO PARTIDA 2. MULT.

17:30 Leizaran-Tolosa / Lar, 17

### KADETE MAILA, MUTILAK

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

#### ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Leizaran Horia-Egia 3 / Ig, 18

#### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

#### ASTEBURUKO PARTIDA 1. MULT.

- Urnieta-Amenabar B / Lar, 24

#### ASTEBURUKO PARTIDA 2. MULT.

12:00 Leizaran-Komat Eibar / Ig, 18

### KADETE MAILA, NESKAK

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

11:00 Aloña M. B-Leizaran H. / Ig, 18

#### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Usurbil A-Leizaran Urd. / Lar, 17

16:00 Ordizia-Urnieta / Lar, 17



## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 15

**ANDOAIN Arretarako bulegoa**  
Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.  
**Bastero, 17:00-19:30.**

**ANDOAIN Bilera**  
Pausoz pauso ekimenean omenduko dituzten hautagaiak erabakitzeko bilera.  
**Urigain, 18:00.**

**ANDOAIN Asanblada**  
Martxoaren 8ko greba antolatzeko bilera irekia antolatu du Asanblada Feministak.  
**Gaztetxea, 19:30.**

## OSTIRALA 16

**ANDOAIN Arreta bulegoa**  
Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.  
**Bastero, 10:30-13:00.**

**ANDOAIN Antzerkia**  
Ergela antzezlan, Txalo produkzioaren eskutik. Sarrera: 12 euro; gazte ordua: 3 euro.  
**Bastero, 21:30.**

**URNIETA Ipuin kontaketa**  
Ipuin kontaketa saioa Marisa Taberneroren eskutik.  
**Lekaio, 17:30.**

## LARUNBATA 17

**ANDOAIN Erakusketa**  
Naiara Delgado Perezen erakusketa ikusteko azken eguna.  
**Bastero, 10:30-13:30/18:00-20:30**

**ANDOAIN Txotxongiloak**  
Anita Maravillas taldearen eskutik, Jon Braun txotxongilo ikuskizuna.  
**Bastero, 17:00.**

**URNIETA Batzarra**  
Denda Berriren ez ohiko batzarra, zuzendaritza berria hautatzeko.  
**Denda Berri, 17:00.**

**URNIETA Kontzertua**  
Eñaut Elorrieta, Super H elkartearen alde. Sarrerak agortuta daude.  
**Sarobe, 19:00.**



AIURRI

**ANDOAIN Inauterietako argazki lehiaketa**

Andoingo Udaleko Kultura Batzordeak argazki onena saritu nahi du, 2019ko inauterietako kartel iragarlea eta programaren azala osatzeko erabiliko duena. 250 euroko sari bakarra izango da. Oinarriak andoain.eus webgunean.  
**Otsailaren 22ra arte. Basteron aurkez daitezke lanak.**

## IGANDEA 18

**ANDOAIN Ikuskizuna**  
Los visitantes. Asier Etxeandia aktorea eta Jon Maia bertsolaria.  
**Bastero, 19:30.**

## ASTELEHENA 19

**ANDOAIN Inauteriak**  
Inauterietako balorazio bilera.  
**Bastero, 19:00.**

## ASTEAZKENA 21

**ANDOAIN Tailerra**  
Ile apainketarako tailerra, gaztetxoek zuzenduta.  
**Gazte Lokala, 17:30.**

**ANDOAIN Bilera**  
Ametsondoa elkartearen deialdia.  
**Urigain, 18:00.**

## OSTEGUNA 22

**ANDOAIN Lehiaketa**  
Udalaren osoko ohiko batzaraldia.  
**Udaletxea, 19:00.**

## OSTIRALA 23

**ANDOAIN Irteera**  
Villabonako Gazte lokalera irteera.  
**Gazte Lokala, 17:00.**

## LARUNBATA 24

**ANDOAIN Piano Jaialdia**  
Udalak Deiadar taldearekin batera antolatutako XIII. Andoingo Piano Jaialdia.  
**Bastero. Egun osoan.**

**DONOSTIA Manifestazioa**  
Erraustegiaren aurkako deialdia, bertako eragileen babesarekin.  
**Gipuzkoa plaza, 17:30.**

## IGANDEA 25

**URNIETA Antzerkia**  
Linbo planeta, Dejaburen ikuskizun berria, adin guztientzat.  
**Sarobe, 17:30. 3 euro.**

**ANDOAIN Piano Jaialdia**  
Udalak Deiadar taldearekin batera antolatutako piano jaialdia.  
**Bastero. Egun osoan.**

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

**Una bolsa de canicas**  
Larunbata, 17:19:30; 22:00.  
Ig, 18: Saiorik ez.  
Astelehena, 19:19:30; 22:00.




**Otsailak 24-26:**  
Piano jaialdia dela eta ez da zine emanaldirik izango.

**Martxo:**  
Los archivos del Pentagono edota La forma del agua film ezagunak.

**URNIETA****SAROBE**

**Ballerina**  
Ostirala, 16:17:00. Euskaraz.  
**La isla de los monstruos**  
Igandea, 18:17:00.

## SINOPSIK

**Ballerina**

**Zuz.:** Eric Summer, Eric Warin. **Herr.:** Frantzia (2016). **Iraupena:** 90 minutu. **Hizkuntza:** Euskara.

## Dantzari izatea amets

Feliciak gurasoak galdu berri ditu, eta geroztik umezurztegi batean bizi da. Dantzari izatea

du amets, eta hori lortzeko bere lagun Victorrekin Parisera alde egingo du.

## Doako prestakuntza ikastaroa

Kutxazain eta apal-betetzalearen doako prestakuntza ikastaroa. Otsailaren 23an hasita, ehun orduko praktikak egingo dira. Hautagaiak:

- 16-29 urteko emakumeak.
- Langabetuak.
- Goi mailako ikasketarik gabekoak.

Epea: Otsailak 22.  
943 304 221 | 699 079 817



## Erorketak ekiditeko tailerra

Adinduen osasuna eta harreman sozialak sendotzeko asmoz, Udalak ibilbideak antolatu ditu Andoainen eta inguruetan, Osasun Sailarekin, herriko gizarte elkarteekin eta jubilatutako elkarteekin batera. Astelehena oinez egiteko txangoak izango dira. Txanda bakoitzean Andoingo elkarte bat antolaketaz arduratuko da.

**Tailerra jubilatuentzat**

Otsailaren 21ean ibilbideei hasiera eman baino lehen, Udalak erorketak ekiditeko tailerra antolatu du. Doakoa da, baina gonbidapena behar da sartzeko. Eskuragarri daude Basteron, jubilatutako elkarteetan eta Allurralden. Otsailak 19, astelehena Bastero, 17:00.



ZORION AGURRAK



**ANDOAIN Markel**  
 Markelek urtebete egingo du otsailaren 26an. Zorionak eta muxu handi asko etxekoan partez. Unax, aita eta ama



**ANDOAIN Rojo**  
 Igandean gure koadrilako xarrenak urteak beteko ditu. Trago ta pintxo batera gonbidatuko al gaitu?



**URNIETA Peio**  
 Peio, zorionak! Jadanik zortzi urte bete dituzu. Ondo pasa familia guztiarekin.



**ANDOAIN Nahia Idigoras**  
 Nahia Idigorasek 16 urte bete zituen otsailaren 12an. Muxu handiak aiton-amona eta etxeko guztien partetik.



**ANDOAIN Eneko Idigoras**  
 Enekoek otsailaren 19an 19 urte beteko ditu. Jator-jator segi. Muxuak aiton-amona eta etxekoan partetik.

TELEFONO ZENBAKIAK

**URNIETA**

Bertan: 943 008 000.  
 Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
 Ertzaintza: 943 538 840.  
 Osasun zentroa: 943 006 680.

**ANDOAIN**

Ataria: 943 300 830.  
 Udaltzaingoa: 943 300 819.  
 Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
 Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDOAIN**

**Larunbata 17 eta igandea 18**  
 PAJARES: Zumea kalea, 20.  
 943 592 629. Andoain.

**URNIETA**

**Larunbata 17 eta igandea 18**  
 TANCO: Idiazabal, 39.  
 943 550 942. Urnieta.  
 Gauez, bi herrietan: Castilla.  
 943 552 941. Hernani.

**EÑAUT ELORRIETA**  
 Zuzenean

**DESERRIKO**  
 KANTAK

SAROB EURNIETA

Otsailak 17  
 larunbata  
 19.00etan

**LARUNBAT HONETAN. SARRERAK AGORTUTA**

Antolatzailea Loguntzailea

**Super In**

ESKERTZA

**Rosario Artano Arruabarrena**

Astelehenean hil zen, 91 urte zituela.

Bere senarra: Iñaki Arregi Moraza. Seme-alabak: Iñaki eta Leire, Kontxi eta Fortu, Agurtzane eta Aitor, Joxe Martin eta Domi, Josu, Arantxa eta Martxi. Bilobak: Peru, Jone, Ainara, Haritz, Beñat, Ane, eta Markel. Anai-arrebak: Maria (†), Xabino (†), Kontxita (†) eta Arantxa.

**FAMILIAREN PARTETIK**

**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
 edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

**Eskelak Aiurriin: 90 euro**



# Inauteriak [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) webgunean



**AIURRI.EUS**  
**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**

